



2020KO URRIAREN 7KO EBAZPENEAN EGINDAKO AKATSA ZUZENKETA. EBAZPEN HORREN BIDEZ 2019-2020 IKASTURTEKO HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO HIRUGARREN MAILA, HAUR HEZKUNTZAKO BIGAREN ZIKLOA, LEHEN HEZKUNTZA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA ETA OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA EGITEN ARI DIREN IKASLEEN GARRAIORAKO BANAN-BANAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKURATZEKO EGIN ZEN DEIALDIA BEHIN-BETIKOAN ESLEITZEN DA.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 109.2 artikuluan, zera esaten du: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak."

2020ko urriaren 7ko Ebazpena, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, eskola-garraiorako banan-banako dirulaguntzen deialdiko eskaerak behin betiko ebazten dituen, berrikusi eta gero, hurrengo akatsa egon zela eglaztatu da:

Esaten duen lekuan:

"Lehenengoa.- eranskinean agertzen diren eskatzaileei, 2019-2020 ikasturterako eskola garraiorako banan-banako dirulaguntzen behin-behineko ebazpenaren berri ematea.

Bigarrena.- Hamabost egun naturaleko epe bat irekitzea, prozesu- eta administrazio-epeen etendura amaitzen denetik kontatzen hasita, 463/2020 Errege Dekretuaren arabera, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek behin-behineko ebazpenaren kontra alegazioak aurkezteko".

Hau esan behar du:

"Lehenengoa.- Eranskinean agertzen diren eskatzaileei, 2019-2020 ikasturterako eskola garraiorako banan-banako dirulaguntzen behin-betiko ebazpenaren berri ematea.

Bigarrena.- Hilabeteko epea irekitzea, behin betiko ebazpena <https://euskadi.eus> webguneko iragarki-taula elektronikoan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eranskinean zerrendatutako eskatzaileek gora jotzeko errekurtsioa aurkezteko Hezkuntzako sailburuari".

Zuzenketa horrek ez die eragiten ebazpenarekin batera argitaratutako lurralde historiko bakoitzeko zerrendei, zerrenda horiek zuzenak baitira. Horregatik, ezin da aldatu gora jotzeko errekurtsioa jartzeko epea.

Vitoria-Gasteiz, 19 de octubre de 2020

PATXI XABIER AIZPURUA TELLERIA
ADMINISTRATIOEN ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEA

